



Lamiñak

(antzerkia)

KARGÜAK :

Pette laboraria	Aüzapeza/Herriko Jauna
Herritar saldo bat	Xabi
Herritar bat	Ximun
Apeza	Lamiña 1
Lamiña saldo bat	Lamiña 2

- I -

Laborari bat eiheralat joaiten, zakü bat bizkarrean.

Laboraria : – Zer pezü den zakü hau ! Eta orano hamar kilometra egiteko !
Zübüa, zübüa behar günüke !

Herriko Jauna : – Egün hon, Pette, norat ari zira ?

Laboraria : – Eta eiheralat, bena bidea lüze düzü eta ez düzü zübürik !

5

Herriko Jauna : – Ez, ez, badakit, bai, gaixo Pette ! Bena azkarra zira, bai ! Izan ontsa !
(*Herriko Jauna joaiten.*)

Laboraria : – "Gaixo Pette, gaixo Pette", beti ber gaüza ! Zübüa behar dügü !
Zübüa, alajintxoria... eta ez "gaixo Pette !" !

- II -

10 (*Herriko bi potiko arrantzün, argitzean.*)

Ximun : – Badüka xixaririk?

Xabi : – Bai, hartu ditiat.

Ximun : – Eman bat ordüan.

Xabi : – To, har ezak!

15 Ximun : – Eskerrik hanitx.

(*Biak arrantzün hasten.*)

Xabi : – Txo! Entzün düka zerbait?

Ximun : – Ez, deus ere!

Xabi : – Nik bai, zerbait entzüten diat.

20 Ximun : – Bena ez! Txori bat dük, ixil hadi!

(*Harritürik, lamiña bat ikusten düe, iresten ari.*)

Xabi : – Zer da hori?

Ximun : – Ez dakiat.

Xabi : – La...la...lamiña bat uste diat!

25 Ximun : – B...b...bai se...se...segür dük!

(*Ximunek ürsain egiten eta lamiña ezkapatzen.*)

Xabi : – Lamiña! Lamiña! Tziauri, tziauri! Orrazea ahatze düzü!

(*Lamiña arrajiten emeki emeki.*)

Xabi : – Egün hon!

30 (*Lamiña ixilik.*)

Ximun : – Lamiña bat zira?

Lamiña : – Direla ez da sinetsi behar, ez direla ez erran behar.

Ximun : – Eta zer egiten düzü?

Lamiña : – Lagünekin lan, lamiña lan, beti lan, lan eta lan, lamiña lan.

35 Ximun : – Zer lan?

Lamiña : – Eliza, zübü, etxe, beti lan, lan eta lan.

Ximun : – Zonbat zide?

Lamiña : – Hamabi mila, Gillen eta Gillen, eta Gillen eta Gillen... (*emeki joaiten*)

Xabi : – Orrazea, zure orrazea!



- III -

40 *Bilkūra herriko plazan, aüzapeza goran xütik.*

H. Jauna : – Herritar maiteak! Ni Herriko Jaun handia niz eta betidanik ene nahia izan da züen zerbütüa, herritar maiteak...

Laboraria : – Ez dugu zübürik!

H. Jauna : – (*arrahasen*) Herritar maiteak...

45 *Laboraria* : – Ez dugu zübürik!

Herritarrak : – (*ahapetik has*) Zübüa, zübüa, zübüa...! (*gero eta zinezago*).

H. Jauna : – Ixil, ixil zitee! Herritar maiteak!

Herritarrak : – Zübüa nahi dügü!

H. Jauna : – Egia, ez dügü zübürik, bena ni, züen Herriko Jaun handia izanik, ene
50 nahia beti da züen zerbütü...

Apeza : – Bai eta ez dügü elizarik, alajinkoa...! Parka Jauna!

Herritarrak : – Zübüa, eliza, zübüa, eliza,... (*gero eta zinezago*)

(*Herriko Jauna lotsaz joaiten.*)

Ximun : – (*kaideran iganik*) Nik badakit zer egin! Lamiñak deitü behar dütügü!

55 *Herritarrak* : – Ho, lamiñak! Ho, lamiñak! (*errepika, harridüra markatüz eta taldean müsikalki moldatüz, "Ho" hatsa hartüz erranez*)

Ximun : – Bai, lamiñak!

Herritar bat : – Bena non dira?

Ximun : – Heben, Xiberoan! Ezpeizen, Altzürükün, Lakarrin, Gotainen, orotan!

60 *Herritar bat* : – Ezpeizen ere bai?

Ximun : – Eta bai! Bat ikusi dügü Xabirekin.

Herritar bat : – Ni lotsa niz! Etxerat banoa!

Beste bat : – Ni ere bai...

Beste bat : – Ni ere bai...! (*bederazka abiatzen plazatik*)

65 *Ximun* : – Bena lana gaü batez egiten düe!

Herritar bat : – Gaü batez! Ordüan zoazte horien ikustera.

(*Jenteak marmar barreatzen.*)

Herritarrak : – Gaü batez... ni lotsa nüzü...

- IV -

Lamiñak oihanean, ülünean, ebilten, kantüz, mintzaje konpreniezin batez mintzo;
70 *gero jarten; Xabi eta Ximun kukuzkan. Lamiña batek ikusten dütü.*

Lamiña 2 : – Tziauste! Ez lotsa izan!... Zer nahi düzüe?

Xabi : – Ez dügü zübürik.

Ximun : – (*ahapetik*) Eliza! Eliza!

Xabi : – Eta ez dügü elizarik.

75 *Lamiña 2 :* – Ordüan nahi düzüe zübü bat ühaitzaren gainen
eta eliza bat Ezpeizen.

Xabi : – Bai! Hori bera.

Ximun : – Bai! Hori düzü.

Lamiña 2 : – Ontsa! Bihar eginik dirate biak.

80 *Ximun :* – Bihar?

Lamiña 2 : – Bai, bihar.

Xabi : – Bena zer nahi düzüe pakütako?


Lamiña 2 : – Ez dakit... züek zer nahi düzüe?

Lamiñak : – Txitxi ta papa, papa bustia... bai...
85 ez... neskatila eijer bat... bai... ez...
(*denak batetan elestan ari*).

Lamiña 2 : – Aski! Herriko neskatila eijer bat nahi
dügü! Eta orai zoazte hebentik!

Ximun : – Eskerrik hanitx!
90 Gaü hon!





- V -

Zübüa eta eliza gaüaz egiten, lamiñak lasterka, "Lamiña" errepika kantatüz eta tanpez eküratzen, harriak esküz-eskü igaranarazten.

Lamiñak : – To, Gillen... Har, Gillen... Gillen! aigü honat... Esker mila, Gillen... Zübüa eginik diagü, Gillen!

95 *Lamiña 2 : – Ontsa, Gillen! Orai, eliza.*

Lamiñak : – (arrahas) To, Gillen... har, Gillen...

Lamiña 2 : – Zalhe! zalhe, Gillen! Oilarra laster hasiko dük!

(oilarra ezagün eta lamiñak oro ezkapatzen)

- VI -

Herritarrak etxeetarik elkitzen amiratürik eta emeki plazan biltzen.

Herritarrak : – Zübüa, eliza..., zapartagarria! Zübüa, eliza..., harrigarria! Zübüa, eliza... eta dena harria!...

100

H. Jauna : – (kaideran iganik) Herritar maiteak...

Herritarrak : – "Lamiña, lamiña" (kanta behin)

H. Jauna : – (arrahasten) Herritar maiteak...

Herritarrak : – "Lamiña, lamiña" (errepika eta bertsoak)

105

Ürrentzeko "Lamiña lamiña" kanta eta azken "LA" ren erraitean : beltza.



KANTOREA

Lamiña, lamiña, lamiña...

Ez elizarik Ezpeizen,
Zübürük gabe Ündü(rei)nen.
Zer ote egin behar zen :
Ikustera joan lamiñen...

Lamiña, lamiña, lamiña...

Ber gaüan dena egin zen :
Jüntatü milaka Gillen.
Bena presan zer agitzen :
Zeinütegia okertzen...

Lamiña, lamiña, lamiña...

Mixel ETXEKOPAR